


“Nire ibilbide profesionalaren lehen urratsak emateko, Lantegi Batuak-en praktikak egitea aukeratzen dut”

X. Beka Deialdia Desgaitasuna duten Ikasleentzat:

PRAKTIKAK LANTEGI BATUAK-en



Nahitaezkoa:

- > %33ko edo gehiagoko desgaitasun-ziurtagiria.
- > UPV/EHuko Graduko azken mailako, Master ofizial edo berezko Masterreko ikaslea izatea.
- > Unibertsitate titulua lortzeko beharrezkoak diren kredituen %50a gainditua izatea gutxienez izen-emate epea amaitzerakoan.

LANTEGI BATUAK irabazi asmorik gabeko fundazio bat da, eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat lan-aukerak sortzea du helburu.

Horregatik, UPV/EHU-ko Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuarekin batera beka deialdi bat argitaratu da desgaitasunen bat duten ikasleen enplegarritasun aukerak gehitzeko, LANTEGI BATUAK-en lantegiren batean 6 hilabeteko praktikak eginez.

Nola?

Beka eskatu ahal izateko, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- LANTEGI BATUAK-en eskabide-inprimakia. (Jaitsi daiteke Lantegi Batuak-en webgunetik: <https://www.lantegibatukak.eu/wp-content/uploads/2022/04/220426ImpresoSolicitud-WEB-2.pdf>).
- I. eranskina. Kanpoko praktikak egin ahal izateko Zentroaren baldintzak betetzen direla bermatzen duen dokumentua (Praktiken Unibertsitateko Zentroaren arduradunak sinatuta). (Jaitsi daiteke UPV/EHU-aren webgunetik: ehu.eus/eu/web/discapacidad/lantegi-batuak-en-praktikak-egiteko-beka).

Noiz?

- 2023ko azaroaren 1etik abenduaren 15era bitartean: eskabideen aurkezpena.
- 2023ko abenduaren 16tik 2024ko urtarrilaren 15era bitartean: aurrez hautaturiko hautagaiei elkarrizketak.
- 2024ko otsailaren 1etatik uztailaren 30era bitartean: praktikak egitea.

Zenbat?

Ikasle bakoitzarentzat praktikak egiteko esleitutako diru kopurua hilean 750€koa izango da.

(Praktika ez baldin bada lanaldi osokoa, dagokion parte proportzionala emango da).



Eskabideak 2023ko abenduaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira Enplegarritasunean Laguntzeko BBK Zerbitzuan, Goietxa Bidea, 18 – 48150 Ola-Sondika. Alicia Garcia zuzenduta: aliciagarcia@lantegibatukak.eu

Informazio gehiago eskatzeko:

Ezgaitasunak dituzten
Pertsonentzako Zerbitzuan

☎ 94 601 22 58 ehu.eus/discapacidad